

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Noaingo Intermodal Terminala inauguratu du, Bartzelonako portuarekin trenez lotzen duena

Logistika-zentroak errepideko eta treneko salgaien garraioa hartzen du

Lunes, 25 de febrero de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Noaingo Intermodal Terminalaren (TIN) inaugurazio-ekitaldiaren buru izan da gaur. Logistika-zentro hori iragan urritik Bartzelonako portuko BEST (Barcelona Europe South Terminal) edukiontzien terminalarekin trenez lotuta dago, Europako itsasoko terminal moderno eta eraginkorrenetako batekin, hain zuzen.




Barcina Lehendakaria eta Zarraluqui kontseilaria, gainerako agintariekin, Noaingo Intermodal Terminallean.

Zerbitzu berriak Foru Komunitateko industria-sareari mesede egingo dio, Europako portu nagusietako baten bidez produktuak inportatzea eta esportatzea errazten baitu. Gaur egun, zama-maiztasuna asteko tren batekoa da. Nolanahi ere, egun gutxi barru bi lotura-tren izango direla aurreikusten da, bakoitzak 70 TEU-tako ahalmenarekin (20 oineko edukiontzia) eta 20 orduko zirkulazio-denborarekin, eta zenbait hilabetetan astean hiru tren izatea espero da.

Barcina Lehendakariak bere agerraldian azpimarratu du azpiegitura horrek zer garrantzi duen Nafarroarentzat, bere izaera esportatzaileagatik nabarmentzen dena, eta adierazi du zerbitzu berriak agerian uzten duela "jarduera ekonomikoa izaten jarrai daitekeela", krisi-garaian egon narren. Halaber, Foru Komunitateak tren bidezko garraioaren alde egindako apustua azpimarratu du, horrek enpresa-sektoreari ematen dizkion abantaila lehiakorrekin.

Noingo Tren Logistika Zentroan dagoen azpiegitura Iruñeko Garraioaren Hiriarekin eta Espainiako iparraldeko beste hiri batzuekin lotuta dago (Zaragoza, Irun, Logroño, Bilbo...) errepidez. Hortik datorkio intermodal-izaera hori, operazioak trenez eta

errepidez integratzen dituelako. Gainera, aurreikusita dago etorkizunean Prestazio Handiko Trenarekin lotura izango duela eta Frantziako hegoaldearekin operazio-zentro balioko duela Kantauri-Mediterraneoko korridorearen bidez.



Barcina Lehendakaria Noingo Intermodal Terminala inauguratzen.

Logistika-zentroarekin Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetuko dela uste da, treneko garraioa sustatzean. Renferen azterketa baten arabera, tren bidezko salgaien garraioarekin % 40 eta % 50 artean aurrezten da, eta % 20 kamioia-trena intermodalitatea nahastean. Gaur egun, Nafarroara heltzen edo handik abiatzen den salgaien ia garraio guztia errepidez egiten da.

Inaugurazio-ekitaldian izan dira: Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui; Iruña (Enrique Maya), Noain (Oscar Arizcuren) eta Galarko Zendeako (Cecilio Lusarreta) alkateak; Adif-eko Logistika Zerbitzuen merkataritza-zuzendari Ignacio Sanz Junoy; Bartzelonako Portu Agintaritzako lehendakari Sixte Cambra; Catalunya Terminaleko zuzendariorde nagusi Guillermo Belcastro (TIN kudeatzen duen enpresa); eta Nafarroako GIMEX logistika-enpresako zuzendari Ángel Tellechea.

Noingo Intermodal Terminala

Terminalak 15.000 metro koadro hartzen dituen biltegiak ditu eta hamazazpi trenbide, haietako bederatzi zamalanetarako, eta beste zortzi harrerarako.

Azpiegitura Catalunya Terminalak (TERCAT) kudeatzen du, Hutchinson Port Holdings talde txinatarraren filiala dena. Azken hori munduko operadore handiena da edukiontzien terminaletan, eta Asia, Ekialde Ertain, Afrika, Amerika, Ozeania eta Europako 26 herrialdeetako 52 portutan dago (haien artean, Bartzelonako postuko BEST terminala).

Haren inaugurazioak 2010eko apirilean hasitako prozesuari amaiera ematen dio Nafarroako Gobernuaren –Nafarroako Garraio eta Logistika Agentziaren (ANL) bidez–, Iruñeko Garraioaren Hiriaren (CTP) eta Treneko Azpiegituren Administrazioarekin (ADIF) arteko akordioa izenpetuz terminala sortzeko bideragarritasun-azterketa egite aldera.

2011ko urtarrilean aurkeztutako azterketak jada baziren instalazioak baliatzeko aukera zehaztu zuen, Iruñerriko intermodalaren aukera finkatuz eta baita trenbide arrunteko zabalaren ordez nazioarteko bidearen zabalera jartzeko egokitasuna ere merkatu berriei atea zabaltzeko.

2012ko maiatzean erakunde horien artean elkarlanerako bigarren akordio bat izenpetu zen zentroaren garapenean aurrera egiteko. Koordinatzeko erakunde bat sortu zen eta negozio-plan bat diseinatu.